

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Leitza



Aurkibidea

Udalerria: Leitza

Sarrera



Nafarroako mendialdeko ipar-mendebaldean kokatuta dago, Leitzaldea izeneko eskualdean. Ondoko herri hauekin egiten du muga: iparraldean, Berastegi eta Goizueta; hegoaldean, Uitz (Larraun); ekialdean, Goizueta, Ezkurra (Malerreka) eta Beruete (Basaburua); eta, mendebaldean, Berastegi eta Areso. XX.mendean zehar Leitzaren demografiaren kopururik altuenak lortu ziren: burdina berriro indartzeak, Plazaola trenaren agerpenka (herritik pasatzen zena eta 1953.urtera arte iraun zuena), paper lantegia herrian ezarri izanak... ahalbidetu zuten hori. Azken hau izan da urte luzez herriko ekonomiaren oinarria.

- **Biztanleak:** 2.916
- **Euskaldunak:** %91,75

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **11**
- Zintak: **22**
- Pasarteak: **170**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **170**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskalkiak.eus
- Gazte gara gazte
- Gipuzkoako zuhaizti motzak
- Leitzako hitanoa berpizten: Hika eta toka. Noka ere toka!
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

Hizlariak

Beñat Alzelai Canflanca (1999)



1999ko martxoaren 14an jaio zen Beñat, leitzarra da, eta Leitzan bizi izan da beti. Ama urretxuarra eta aita leitzarra ditu, eta anaia gazteagoa du. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasketak egiten ari zen Leitzako Amazabal institutuan koadrilako hiru lagunekin elkarriketatu genuenean. Lagunartea, Leitzza, irakurzaletasuna, telebista, IKTak, saskibaloia eta musika izan genituen mintzagai. Beñatek Malen Barriola koadrilako lagun iruindarrarekin batera

Andoni Amadoz Azpiroz (1999)



1999ko apirilaren 30ean jaio zen, eta Zizur Nagusikoa da. Hala ere, ama Leitzakoa du Andonik, eta Malen Barriola bezalaxe, ostiral iluntzero Leitzara joan ohi dira asteburu pasa, eta baita udako, neguko zein urteko beste edozein oporraldi igarotzera ere. Hori dela medio, Andonik ere badu Leitzan koadrila. Saioa Mateorenarekin egin genion elkarriketa, eta Naturaz, kirolaz, euskal dantzaz, Leitzaz, Zizurreko institutuaz, mendirako zaletasunaz, genero kontuez, IKTez, eta telebista saioez mintzatu ginen Andonirekin, besteak beste.

Ramon Astibia (1942)

Malen Barriola Eskubi (1999)



1999ko abuztuaren 8an jaioa, Iruñean bizi da Malen, baina ostiral iluntzero eta oporraldi guztietan egiten du Leitzara. Lagun talde edo koadrila, beraz, bietan du. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasketak egiten ari zen Iruñeko Iturrama ikastetxean, Leitzako koadrilako hiru lagunekin elkarriketatu genuenean. Lagunartea, musika, euskal dantzak, eskia, eskalada, irakurzaletasuna, telebista saioak, IKTak eta hipika izan zituen mintzagai Malenek, besteak beste, Beñat Canflanca lagun leitzarrarekin eginiko elkarriketan.

Abel Barriola Ezkurra (1978)



Abel Barriola 1978an jaio zen Leitzan. 1998tik 2017. urtera arte pilotari profesionala izan da eta esku huskako pilotarien artean, hiru txapelketa nagusiak (buruz burukoa, binakakoa eta lau eta erdikoa) irabazi dituzten bakanetakoa da. Izaeraz apala eta langilea, oso maitatua da pilotarien eta zaleen artean.



Migel Barriola Zabaleta (1935)

Migel Barriola Zabaleta. Leitzako Joanzar baserrikoa. Elkarrizketa egin zitzaionean 76 urte zituen.



Patxi Barriola Zabaleta (1930-2019)

Patxi Barriola Zabaleta. Leitzako Baztaingo bordakoa. Elkarrizketa egin zitzaionean 81 urte zituen.



Juani Lazkano Zabaleta (1937)

Leitzan jaioa, gurasoak ere leitzarrek zituen. Hamaika anai-arrebatatik zaharrena. Taberna batean lan egin. Benancio Lekue ondarrutarrarekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituen. Trintxerpen bizi izan da.

Saioa Mateorena Zozia (1999)



1999ko azaroaren 17an jaioa, Leitzakoa da Saioa. Aita Pasaitarra eta ama Narbartekoa ditu, eta anaia bat gazteagoa. Leitzako Amazabal institutuan ari zen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako ikasketak egiten, Andoni Amadoz koadrilako lagunarekin elkarrizketa egin genionean. Naturaz, kirolaz, euskal dantzaz, bertsolaritzaz, mendirako zaletasunaz, genero kontuez, IKTez eta musikaz mintzatu ginen Saioarekin, besteak beste. Saioari eta koadrilako Andoni Amadoz, Beñat Altzelai eta Malen barriolari, Saioaren gurasoen etxean egin genien elkarrizketa, Leitzan.

Maria Jesus Sagastibeltza Zabaleta (1931)



Barun baserrian jaio zen, eta bertan bizitu 20 urterekin herrira ezkondu zen arte.

Geroztik bertan bizi da, Leitza herrian. Baserri munduarekin lotura estua izan du, eta herrian biziagatik ere, lehengo bizimoduarekin bat eginez bizitua da. Etxeko lanez gain, haren familian baratza, alorra eta aziendak izan dituzte beren denbora guztian. Lehengo bizimodua eta ohitura zaharrak oso ongi ezagutzen ditu.

Miel Sukuntza Sagastibeltza (1937)



Sorobarren baserrian jaioa. 12 urterekin artzai-lanetan hasi zen, eta 26 urtez errekoan Leitzalarrean artzai egon zen, alegia, urritik apirilera han bertan bordan negua igarotzen, ardien zaintzan. Bizi osoa baserri-lanetan egin du. Horretaz gain, eguraldia iragartzen trebea da, eta hainbat urtez horren gainean elkarrizketak eta ekarpenak egin izan ditu aldizkarietan eta komunikabideetan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Kanpotik jendea etortzen dela nabari

- **Hizlaria(k)**: Amadoz Azpiroz, Andoni; Mateorena Zozia, Saioa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Erref**: LTZ-004/009
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:15:47. **Bukatu**: 00:16:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
Aisia » Oporrak
- **Laburpena**: Landetxetara eta turismoa egitera jendea doala nabaritzen dute.

Transkripzioa

- Eta, jenderik eta sumatzen da?
- S: Bai.
- A: Bueno.
- S: Nik bai, nik askotan sumatzen dot hemen pareko etxen pos da etxe erdie beraiena ta beste etxen zati ttiki bat pos etxe rurala due. Ta pos askotan ikusten da kotxek ta jendea ta ume batzuk jardiñean ta hola. Baina bueno ez dakit.

- A: Nik ikusten dot askotan... ez etxe ruraletarako, ikusten det pues hor estazioan dau aparkamendu bet, eta justo nere amona hor bizi da ta astebukaeraro beti-beti-beti daude kotxek pues edo paseo bat emaitteko edo lo que sea beiño beti kotxek daude. Beti.

- S: Bai.

- A: Ta egualdi txarra itten bado're, beti! Beti-beti.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Non elkartzen zarete lagunak? (LTZ-003/003)

Tabernetan, kalean, dendetan... elkartzen dira. Lagun baten kafetegian ere egoten dira. Udan plazan eta pistinan elkartzen dira. Erraketan jolasten ibiltzen dira beste kuadrillekin batera.

2. "A fuerar" (LTZ-003/004)

Plazan erraketarekin jolasten dira, galtzen duena bota eta bi talde gelditu arte. Ondoren finala. Umeak, helduak, gazteak... jolasten dira.

3. Mugikorra behar baino gehiago darabilte (LTZ-003/005)

Sare sozialek presentzia handia dute haien bizitzan: Instagrama, Twitterra, SnapChat, Ask...

4. Esperientzia txarrak sare sozialetan (LTZ-003/006)

Gauza zakarrak galdetzeko eta iraintzeko erabiltzen direla aipatzen dute. Ondoren mintzagai bihurtu eta zabaldu egiten dira gertatutakoak.

5. Institutuan ikasten dute biek (LTZ-003/007)

6. Iturrama ikastetxean gatazka (LTZ-003/008)

El mundo eta Interecomomian Iturramako ikasle guztiak ETAkideak direla esan zuten.

7. Irakurzaleak biak (LTZ-003/009)

Malen betidanik izan da irakurzalea. Beñatek umetan gehiago irakurtzen zuen, gaur egungo gaiak ez zaizkio gustatzen. "Gose jokoak" liburuen inguruan hitz egiten dute.

8. Liburu-denetara maiz (LTZ-003/010)

Malenek liburu-dendetara joateko ohitura du, liburuak ikusi eta erosi edo opari bezala eskatzeko.

9. Hitz egiten al duzue liburu-saltzaileekin? (LTZ-003/012)

Beñatek galdetu izan die bilatzen ari den liburuen inguruan.

10. Non irakurtzen duzue? (LTZ-003/013)

Malenek sofán eta ohean irakurtzen du, Beñatek, ordea, beti ohean.

11. Barrea eragiten duten liburuak (LTZ-003/014)

Karmari buruzko liburu batekin egin izan du barre Malenek. Beñatek gaztetxe eta kontzertuen inguruan zebilen protagonistarekin.

12. Zein hizkuntzatan irakurtzen duzue? (LTZ-003/015)

Malenek gaztelaniaz irakurtzen du gehiago, euskaraz eskolako liburuak. Beñatek euskaraz irakurtzea nahiago badu ere, liburuen eskaintza mugatua dela dio, eta askotan gaztelaniaz irakurri behar izaten duela.

13. Liburuak, askotan, gomendatuak (LTZ-003/016)

Malenek gomendio bidez irakurtzen ditu liburu asko, amak eta amonak gomendatuta. Beñaten eta Malenen amek bai euskaraz eta bai gaztelaniaz irakurtzen dute.

14. Inoiz negar egin al duzue liburuekin? (LTZ-003/017)

Ez bata ez besteak ez du negarrik egin liburuekin. Malenek nahiago du irakurri filmeren bat ikusi baino.

15. Leitzan denak batera (LTZ-004/002)

Adin bereko gazte guztiak elkarrekin ibiltzen dira.

16. Euskal dantza (LTZ-004/003)

DBH lehenengo mailan hasi ziren dantza taldean. Urtean pare bat aldiz egiten dute dantza Leitzan. Batez ere herri kirolerako zaletasuna aipatzen dute herrian, ez euskal dantzakoa.

17. Leitzako kirolariak (LTZ-004/004)

Zenbait dira Leitzako kirolari famatuak, baita kazetari eta aktoreak ere bai.

18. Mendizaletasuna (LTZ-004/006)

Biak dira mendizaleak, eta ingurua mendian ibiltzeko aproposa dela diote. Eolikoak aipatzen ditu Andonik.

19. Mendi buelta ala tontorreraino igo? (LTZ-004/008)

Askotan mendian haizea hartzea beharrezkoa dute, deskonektatzeko. Oso barneraturik dute mendira joateko ohitura.

20. Mendiko isiltasuna eta naturaren hotsak maite (LTZ-004/010)

Bakardadean egotea, mendiko haizea arnastea, naturakohotsak entzutea... maite dute mendira joatean.

21. Mendira bakarrik, edo gutxi batzuk (LTZ-004/011)

Bakoitzak bere ogitartekoa eramaten du, eta arratsalde pasa egoteko jokoak eramaten dituzte. Orokorrean mendia garbia dagoela diote.

22. Irakurzaleak biak (LTZ-004/013)

Andonik liburuak hartu eta segituan bukatzen dituela dio, Baztango trilogia bereziki gustatu zaio. Saioak udan irakurtzen du batez ere, ikasturtean ez du denborarik.

23. Irakurzaletsuna etxetik datorkie (LTZ-004/014)

Bien kasuan etxean transmititu zaie irakurzaletasuna.

24. Eskolako derrigorrezko liburuak (LTZ-004/016)

Liburuak irakurri eta ondoren eskolarako laburpena egin behar izaten zuten.

25. Geronimo Stiltonen liburuak gomendatuz (LTZ-004/017)

Batzuetan, ikasleen artean liburuak gomendatzen zituzten.

26. Literatur generoak eta hizkuntza (LTZ-004/019)

Nobela beltzak ditu gustuko Andonik. Saioak, aldiz, denetariko liburuak irakurtzen ditu. Batez ere gaztelaniaz irakurtzen dute, euskara batuan irakurtzea ez baitute gustuko, eta Saioak errazagoa egiten zaiola dio.

27. Liburu-dendetara joaten al zarete? (LTZ-004/021)

Saioaren kasuan saiatu izan da liburutegietan euskaraz liburuak bilatzen. Andonik ez du inoiz horrelakorik egin.

28. Gustuko liburuak (LTZ-004/022)

Jararen trilogia eta misterio liburu batzuk dituzte gogoan.

29. Helburu komertzialak literaturan (LTZ-004/024)

Zenbait autorek dirua irabazteko asmoz idazten dutela aipatzen dute.

30. Ikasleak eta lagunak hizkuntzaren arabera (LTZ-004/026)

Oso txikitan joan ziren Zizurrera bizitzera, hiru bat urte zituela. Institutua oso handia dela dio, hala ere giro ona dutela dio. Hizkuntzaren arabera banatzen dira ikasleak.

31. Gelatik kanpo, erdaraz (LTZ-004/027)

Gela barruan irakasle eta ikasleekin euskaraz egiten badu ere, gelati iretendakoan gaztelaniaz hitz egiten du.

32. Korrika egitea gustuko (LTZ-004/028)

Garai batean atletismoa egiten zuen Andonik. Baina denbora aldetik asko eskatzen zionez utzi egin zuen, ezin ikasketekin uztartu. Orain bere kabuz egiten du korri, eta beste kirol batzuk ere egiten ditu.

33. Sare sozialak (LTZ-004/029)

SnapChat erabiltzen du Andonik, argazkiak denbora jakin batez trukatzeko aplikazioa.

34. Musikarekin egiten du korri (LTZ-004/031)

Musikaren erritmoak korrika egiteko erritmoan eragiten du.

35. Maila altuagoa ingelesean euskaran baino (LTZ-004/032)

Ahal duen guztietan telesailak ingelesez ikusten ditu, hizkuntza lantzeko. Zizurren eta Leitzan ezberdin hitz egiten dela dio, Zizurren euskara batuan egiten baitute.

36. "Pequeñas mentirosas" (LTZ-004/033)

Pequeñas mentirosas telesailaz hitz egiten du Andonik.

37. Uretako kirolak (LTZ-004/035)

Betidanik gustatu izan zaio ur azpian ibiltzea. Ez da gogoratzen norekin ikasi zuen. Igeriketa egiten zuen garai batean, baina ondoren utzi egin zuen denbora faltagatik.

38. Futbol salako jokalaria (LTZ-004/036)

Ostiralero entrenatzen du Leitzan. Helburua ez da lehiaketak egitea, baizik eta kirola egitea.

39. Bertso-eskolako neska bakarra (LTZ-004/037)

Musika oso gustuko duela dio Saioak. Idaztea ere gustuko du, baita bertsolaritza ere. Herriko bertso-eskolan ibili zen gazteagoa zenean. Bertso-udalekuetara ere joan izan da debora luzez.

40. Bertso-udalekuak (LTZ-004/038)

Zerotik hastea gustatu zaio betidanik, errutinarekin haustea. Bertsolariei dagokienez, Egaña, Jon Maia eta Sustrai Colina aipatzen ditu.

41. Urduritasuna bertsoen etsai (LTZ-004/039)

Urduritasuna oztopoa dela dio bertsotan ibiltzeko garaian.

42. Musika eta abestea gustuko (LTZ-004/041)

Leitzako musika eskolan dabil, pianoa jotzen du. Erlajatu egiten dela dio pianoa jotzean.

43. Abestea familatik datorkio (LTZ-004/043)

Etxean bezain ongi abesteko arazoa aipatzen du, urduritasuna dela eta.

44. Abesten non ikasi duzu gehienbat? (LTZ-004/045)

Musika eskolan formatu dela dio.

45. "Shopping" eta gizartean sartzen den presioa (LTZ-004/047)

Andoniri erosketak egitea asko gustatzen ziaio, baina bakarrik joaten denean. Saioak kontsumismoarekin lotzen du arropa eroste hori, eta emakumeen gorputzean duten eraginaz dihardu.

46. Zerk sentiarazi gaitzake presionatuta? I (LTZ-004/049)

Manikien neurriek, modeloen gorputzek, edertasun kanonak, telebistako iragarki matxistek, bular handiagoak izateko bularretakoek... presionatu egiten dituztela uste dute.

47. Zerk sentiarazi gaitzake presionatuta? II (LTZ-004/050)

Galtza motek, makillajeak, txukun joan behar izateak, bakarrik pozik bizi ezin izateak... presioa sortzen die.

48. Telesaileko pertsonaien deskribapena (LTZ-004/052)

"Pequeñas Mentirosas" telesaileko pertsonaiak deskribatzen ditu Andonik.

49. "Barrengoa ez da behar beste baloratzen" (LTZ-004/053)

Matxismoaz, printsesez eta marrazki bizidunez ari da Saioa.

50. Telebistako lehiaketak (LTZ-004/054)

Telebistako lehiaketa programen inguruan ari dira pasarte honetan.

51. Barne egoeraren arabeko musika (LTZ-005/002)

Musika antzekoa entzuten dute egunerokotasunean. Internetetik jaitsi eta Youtuben entzuten dituzte abestiak, batik bat mugikorrean.

52. Gustuko dituzten musika taldeak (LTZ-005/003)

Andonik kanpoko musika entzuten du gehienbat. Malenek denetatik entuten badu ere, euskal musika gustatzen zaio gehien. Saioak Ken Zazpi eta Hesian taldeak aipatzen ditu. Beñatek euskal musika entzuten du, Arkada Social, Berri Txarrak, En Tol Sarmiento... WhatsApp bidez

53. WhatsApp bidez harremantzea (LTZ-005/004)

Musika WhatsApp bidez partekatzen dute musika. Hiru WhatsApp talde dituztela diote: denena, neskena eta mutilena.

54. Zer entzuten zenuten gaztetxoagotan? (LTZ-005/006)

Su Ta Gar, Berri Txarrak aipatzen ditu Beñatek. Ken Zazpi, Pirritx eta Porrotx, Txirri Mirri eta Txiribiton, eskolako kantak, gainontzekoek.

55. Oskorri (LTZ-005/008)

Oskorri, Kortatu, La Polla Records, Itoitz, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, aipatzen dituzte denen artean.

56. telebista saioak (LTZ-005/009)

Master Chef, Castle, Entre Fantasmas, La Que se Avecina, Áída, Big Bang Theory, Morden Family, Pequeñas Mentirosas, Teleberria, Antena 3 kateko berriak, Simpsonak, debateak... ikusten dituzte.

57. "Euskal telebistak lehiaketaren bat behar du" (LTZ-005/010)

Ia ez dute euskal telebista ikusten, berriak, marrazki bizidunak (txikitan), Vaya Semanita, Mihiluze, Kontrako Eztarria, Wazemank, Martin teleaia... aipatzen dituzte.

58. Zein da elikadura osasuntsua? (LTZ-005/011)

Denek adierazten dute elikaduraren garrantzia. Etxeko arraultzak, baratzeko produktuak, fruta... jatea azpimarraten dute. Eskolaren garrantzia aipatzen du Andonik.

59. Garai konfliktiborik izan duzue? (LTZ-005/013)

Haserreak denek aipatzen dituzte. Malenek amarekin talka egiten duela aipatzen du, Saioak 13 bat urte zitueneko garaia du gogoan, eta Beñatek azken bi urteetan igarri du gehiago haserretzen dela gurasoekin.

60. Mugikorra: gatazka (LTZ-005/014)

Mugikorrak zenbaitentzat gatazka bat sortu zuen, bete batzuren kasuan, ordea, ez.

61. Saskibaloia zaletasun (LTZ-006/001)

Aitak gehiago haziko ez dela esaten dio. Beldur da arazoak izango ote dituen altura dela eta. Duela bi hiru urte hasi zen saskibaloian jolasten.

62. Saskibaloia Tolosan aurkitu zuen (LTZ-006/002)

Pilotan jolasteari utzi egin zion eta ondoren Tolosan hasi zen saskibaloian jokatzen. Astean bi entrenamendu ditu, eta larunbatetan partidua.

63. Saskibaloi partiduak eta lehiakideak (LTZ-006/003)

Iparraldeko eta Nafarroako saskibaloi taldeak ez ditu inoiz lehiakide izan.

64. Saskibaloi jokalaria (LTZ-006/004)

NBA gertutik jarraitzen du, biziagoa dela dirudi, show gehiago egoten dela.

65. Euskal Herriko saskibaloi liga (LTZ-006/005)

Gasteizko partiduetan Donostiakoetan baino giro hobea egoten dela aipatzen du Beñatek.

66. Terminologia gaztelaniaz (LTZ-006/006)

Euskaraz egiten saiatzen badira ere, arauak eta terminologia gaztelaniaz esaten dituzte. Telebistan euskara gehiago erabiltzen dela dio.

67. Musikazalea oso (LTZ-006/007)

Musika eskolak jasotzen dituenek ordu asko eskaintzen dizkio musikari. Saxofoia, pianoa eta gitarra jotzen dakizki.

68. Entseatzea, batzuetan, gogorra da (LTZ-006/008)

Txaranga batean jotzen hasi da eta oso gustura egiten duela dio. Gitarra jotzen bere kabuz hasi da mugikorreko aplikazio baten bitartez

69. Trikitilaria da Malen (LTZ-007/002)

Iruñeako alde zaharreko elkarte batean ikasten du trikitixa jotzen, zazpi bat urte daramazki. Giro polita dagoela dio, irakaslea euskalduna da.

70. Iruñea eta Leitza, bi mundu (LTZ-007/003)

Iruñako lagunekin batez ere gaztelaniaz egiten du. Euskaraz egiten duenean, euskara batuan egiten du.

71. Euskal dantza ostiralero (LTZ-007/004)

Ostiralero Leitza dantza taldean biltzen dira, DBH 1. mailan zegoenetik. Festetan dantzatzeko dute Leitza.

72. Eskalada: gakoa hanketako indarrean (LTZ-007/005)

Eskalada ere egiten du. Beste kirolak hasi nahi ez eta lagun batekin izena eman zuten Iruñeako zentro batean.

73. Eskia ere zaletasun (LTZ-007/006)

Frantzi aldean, Pirineo eta Alpeetan ibili izan da eskiatzen. Aita izan ezik gainontzekoekin joaten da. Amonak gaztetatik zuen eskiarekiko zaletasuna eta Malenen amari irakatsi zion.

74. Denek elkarrekin eskiatzen dute (LTZ-007/008)

Gazteagoa zenean, ikasi arte, banaturik eskiatzen zuten. Oso garbi dagoela dio Malenek ez zagoela zaborrik.

75. Hipika (LTZ-007/010)

Betidanik gustatu izan zaizio zaldiak. Zazpi bat urte zituenetik jasotzen ditu hipika eskolak. Azterketak ere egiten dituzte, tituluak lortzeko. Ez zaio txapelketak egitea gustatzen, janzkeragatik batez ere.

76. "Zaldiak ezagutu egin behar dira" (LTZ-007/011)

Neguan zaldian ibiltzea zailagoa dela dio. Bestela, animalia fidagarria dela dio.

77. Hipika, kirola al da? (LTZ-007/012)

Gai polemikoa dela dio Malenek, eta hipika kirola dela defendatzen du.

78. Zein zaintza eskatzen du zaldiak? (LTZ-007/015)

Garbitasuna, elikadura, korrika ibiltzea...

79. Leitzakoa, baina Zizurren bizi (LTZ-008/002)

3 urte inguru zituenetik bizi da Zizurren Andoni. Giro ona Zizurreko institutuan. Gazteen artean joera dago ikasten ari diren hizkuntza ereduaren baitan biltzeko.

80. Gaztelaraz mintzatzeko joera nagusi (LTZ-008/003)

D ereduak ikasten ari den hainbat gaztek gaztelaraz mintzatzeko joera du.

81. Leitzza, liberazio moduko bat (LTZ-008/005)

Andonik ikasketa munduarekin lotzen du Zizur, nagusiki; Leitzza, aldiz, aisiarekin.

82. Atletismoa utzi eta bere kabuz hasi kirolean (LTZ-008/007)

Atletismoa alde batera utzi zuen Andonik, joan-etorri gehiegitara lotzen zuelako. Egun, ordea, hainbat kirol mota praktikatzen du bere kabuz. Snapchat sare soziala erabiltzen dute lagunartean.

83. Snapchat (LTZ-008/008)

Snapchat sare sozialaren gaineko azalpenak.

84. Kaskoak jantzita korrika (LTZ-008/010)

Andonik maite du musika entzutea lasterka egitera joaten denetan; musikaren erritmoak mesede egiten dio.

85. Hizkuntzak: zaletasuna eta gorabeherak (LTZ-008/012)

86. Ezetz esan beharrak ere bazituan hor! (LTZ-015/001)

Bi anairen arteko xelebrekeria. Etxera zihoazen, bat mozkortuta eta bestea txintxo.

87. Beste etxe batera joan bizitzera mantenu- truke, neskatoak eta mutikoak (LTZ-015/002)

Garai batean, familiak oso handiak izaten ziren eta etxeetan eskasia: guztientzat mantenurik ez. 6-8 urteko haur asko beste etxe batera eramaten ziren bizitzera.

88. Erditu ondoren, 40 egunean ez zitekeen etxetik atera (LTZ-015/003)

Emakumea erditzen zenean, 40 egunez ez zitekeen etxetik atera, teilatupean egon behar zuen.

89. Hiru anaia eraman gerrara eta bat hil (LTZ-015/004)

Familia batean hiru anaia gerrara eraman zituzten, eta bat bertan hil. Laugarren anaia ere eramaten zuten, Ameriketara joan ez balitz.

90. Sorginak arto guztiak hondatzen ari zaizkigu (LTZ-015/005)

Baserri batean afaltzen ari zirela, sorginak etorri ziren eta ganbaran zalapartan eta saltsan hasi.

91. Hortza erorita sutara bota (LTZ-015/006)

Hurrei hortza erortzen zitzaizenean, hartu eta sutara botatzen zuten hau esanez: "San Migel, San Migel: tori zaharra eta ekartzu berria".

92. "Jainkoaren izenekoei" gaueko ostatua ematea (LTZ-015/007)

Eskazale asko izaten zen garai batean. Jainkoaren izenekoak esaten zitzairen. Jatekoa ematen zieten, eta gaua igarotzeko lekua ere bai.

93. Ilunpea kobratuko duzu zuk! (LTZ-015/008)

Erasote auzoan, makina zahar baten bidez, argia jarri zuteneko kontua: izorratu ondoren ere kobratu nahi, eta batek izandako ateraldi barregarria.

94. Bizimodu beltz eta gogorra orduko emakumeena (LTZ-015/009)

Neskek mutilek adina lan egiten zuten lehen, baina bizimodu gogorragoa: askatasunik ez zieten ematen kanpoan ibiltzeko, ez zieten uzten deus egiten.

95. Heriotz gozoa (LTZ-015/010)

Aitona-amonak hiketan aritzen ziren elkarren artean, aitona hil zen egunean izan zuten azken elkarriketa.

96. Auzolana nola izaten zen (LTZ-015/011)

Auzolanez laguntzen zioten elkarri lehenago, batez ere zaharrak edo ezinduek zeuden etxeetan egiten zen hori.

97. Kartetan "ahuntza jokatzeari" (LTZ-015/012)

Kartetan berdinketa gertatzen zenean, azken partidak erabakitzen zuen garailea. Horri ahuntza esaten zitzaion.

98. Munduaren hasierako martxak (LTZ-015/013)

Mundua sortu zenean, gauza guztiek, baita animaliek ere, hitz egiten zuten. Goroldioak berriz ez, eta erakusten hasi zirenean, denek galdu zuten hizketako gaitasuna.

99. Kongregazioko zintak kenduko dizkigute (LTZ-015/014)

Lehen, dantzan ezin ibili, eta ibiltzen baziren, elizera eraman beharreko zinta kentzen zieten, denek ikus zezaten bekatariak zirela.

100. Oihal zuria ipintzen abisua emateko (LTZ-015/015)

Baserri inguran lanean ari zirenei, bazkaltzera joateko abisua oihal txuriaren bidez egiten zieten etxekoandreak.

101. Kukulutxa sendatzeko astoaren esnea (LTZ-015/016)

Kukutxeztula gaitza sendatzeko astoaren esnea erabiltzen zuten lehen.

102. Haurrak etxean jaiotzen ziren (LTZ-015/017)

Lehen, haur guztiak etxean jaiotzen ziren, emaginek lagunduta, medikurik gabe.

103. Sendabelarrak (LTZ-015/018)

Sendabelarrak erabiltzen zituzten garai batean gaixotasunak sendatzeko.

104. Ozparrungo txerria irausi (LTZ-015/019)

Ozparrun baserriko txerria trenak harrapatu zueneko istorio zelebrea.

105. Etxera bidean norbait segika (LTZ-015/020)

Aita-semeak etxera zihoazen batean, izpiritu batek atzetik segitu zien baserrira iritsi arte.

106. Beharrak lagundu omen zien lehengoei ere (LTZ-015/021)

Aitak egurra ekartzera bidali zuen semea, bakarrik bidali ere, beharra izeneko batek lagunduko ziola esanda.

107. Ihauterietan esne-saltzailearen kamioian ihesi (LTZ-015/022)

108. Niri aharia hil didak? Bai nik ere hiri zakurra! (LTZ-015/023)

Baserritar bati libre zebilen zakur batek aharia ito zion, eta hark eskopeta hartuta zakurra hil zuen.

109. "Erdie baiheuke!" (LTZ-015/024)

Guardak baimenik gabe aizkoran ari ziren gazte batzuk harrapatzen saiatu zeneko istorio zelebrea.

110. Txartela hartzea eta dotrinarik ez jakitea (LTZ-015/025)

Neskatxa baten eta apaizaren arteko pasartea, txartela ematera joanda: neskak ez jakin dotrinarik, apaizak ere ez animalien berririk.

111. Jakin-nahi, konta-nahi (LTZ-015/026)

Herriko gizon batzuek kuxkuxean aritzen zen batekin izan zuten sesioa, haserrea.

112. Erdaraz ez zekiten gure gurasoek (LTZ-015/027)

Gurasoek ez zekiten gaztelaniaz eta ez zuten eskolarik batere. Hala ere, burutsuak ziren kontuetan eta abar.

113. "Hemen nauk, hemen nauk" (LTZ-015/028)

Jentil bati eta baserritar bati neska bera gustatzen zitzaien, eta hasarretu egin ziren: baserritarrak begia lehertu zion, eta jentilak atera ez zitekeen eraztun bat behatzean sartu.

114. Orantzaro arratsean su berria baserrietan (LTZ-015/029)

Olentzero arratsean su zaharra kendu eta garbitu, eta su berria egiten zuten, etxeko bakoitzak egur-puska bana han jarrita.

115. Orantzaro begigorri (LTZ-015/030)

Olentzero egunean panpinak paratzen ziren eta burutarako kalabaza erabiltzen zuten. Gainera, egun horretan arroparen bat edo, estreinatzen zuten Olentzerori begia galtzeko.

116. Soldaduak zeramatzan kamioia (LTZ-015/031)

Gerra hasieran soldaduak ikusi zituzten kamionetan eta aitari haiez galdezka hasi zitzaionean hasarretu egin zen.

117. Bularra ematea auzolanez (LTZ-015/032)

Haur bat jaiotzen zenean, bularra hartzen ikasteko edo amak gutxi bazuen, auzoko beste amaren batek emanen zion arazorik gabe haur berriari.

118. Artoa (LTZ-015/033)

Artoa, taloa baino lodiagoko opila, supean erretzen zen. Taloa baino askoz lodiagoa eta goxoagoa.

119. Lixua (LTZ-015/034)

Garbigailurik ez zenean, maindireak eta arropa suko hautsa erabilita garbitzen ziren kuela izeneko ontzi batean.

120. Ihauterietan esne-saltzailearen kamioian ihesi (LTZ-015/035)

Ihauterietan mutilak atsagureturik (aurpegia estalita) ibiltzen ziren eta gaiztakerietan hasten ziren neskekin. Egun batean, ihes egin zieten neskek esne-saltzailearen kamioian.

121. Txondorra (LTZ-015/036)

Aitari txondorra egiten laguntzen zion Maxuxek, eta, hasi eta buka, nola egiten zen azaldu digu.

122. Ardia lehertu gaztaina janda (LTZ-015/037)

Ardiak gaztainadira joaten baziren, ale asko jan, ura edan, eta lehertu egiten ziren.

123. Ardi demonioa (LTZ-015/038)

Ardien bila joan eskolatik aterata, eta bat gordeta gelditu. Bigarren aldian joan behar izan zuen ardi bihurri haren bila.

124. Eguna egunekoentzat, gaba gabekoentzat eta Marikattalin guretzat (LTZ-015/039)

Sorginek hartu eta haiekin eraman zuten neskato bat, uraren bila iturrira ilundu ondoren joan zelako.

125. Kamarra lur mutur batengatik (LTZ-015/040)

Bi aitona hasarretu ziren mugan zegoen lur zati txiki batengatik. Bakegilea etorri zenean, di-da batean baketu zituen.

126. Gurasoek egiten ezkontzak (LTZ-015/041)

Lehen gurasoek erabakitzen zuten nor norekin ezkondu, haiei iritzirik eskatu gabe.

127. Emakumea eta eliza (LTZ-015/042)

Emakumea erditu ondoren 40 egunez ezin atera, eta behin aterata elizera apaizari maindireak eta ogia ematera.

128. Maxurreneko barkilloa (LTZ-015/043)

Neskameak zilarrezko ontzi bat ostu zuela uste zuten, eta kandela bihurria egin zioten mina emateko. Etxeko zuhaitz bat ihartzen hasi zen ontzia zuhaitzean utzia zegoelako.

129. Emakumeek buru gainean perradak eta mandatuak (LTZ-015/044)

Emakumeek burukatea erabiltzen zuten garraiorako, ura eta erosketak buruaren gainean erabiltzeko.

130. Trumoiak eta ekaitzen kontrako erremedioak (LTZ-015/045)

Eguzkiloreak eta San Juan belarrak erabiltzen zituzten ekaitzetatik eta tximistetatik libratzeko.

131. Istilua lur mutur batengatik, Beiñes bakegilea (LTZ-021/001)

Bi aitona hasarretu ziren mugan zegoen lur zati txiki batengatik. Bakegilea etorri zenean, di-da batean baketu zituen.

132. "Oraintxe hiltzen gaitik" (LTZ-021/002)

Egun askotan eskola-piper egiten zuten bi mutilek, lanean ari behar izaten zutelako baserrian, eta joan ziren egun batean jo egin zituen maisuak hitz egiteagatik.

133. Ihauterietako eskea dela eta (LTZ-021/003)

Inauterietan eskea egiten da baserrietan. Lehen baserri gehienetan ematen zizkieten gauzak eskelariei, baina urte batzuetan sekulako astakeriak egiteagatik, gero eta gutxiago dira ateak irekitzen dituztenak.

134. Hura zuan hura, mendirako gizon ernea!" (LTZ-021/004)

Kontrabandoan zebiltzan batean, lainoarekin galdu egin zen mutil saila mendian. Han zuten Joxemari izeneko bat, sekulako suma zuena. Hark bilatu zien bidea egun hartan ere.

135. Emakumeek buruaren gainean pegarrak eta erosketak (LTZ-021/005)

Emakumeek burukatea erabiltzen zuten garraiorako, ura eta erosketak buruaren gainean erabiltzen zituzten.

136. Maxurreneko barkilloa (LTZ-021/006)

Neskameak zilarrezko ontzi bat ostu zuela uste zuten, eta kandela bihurria egin zioten mina emateko. Etxeko zuhaitz bat ihartzen hasi zen ontzia zuhaitzean utzia zegoelako.

137. Frantziako erregeak inortaz behartu gabe bizi nahi (LTZ-021/007)

Frantziako erregeak inortaz bizi gabe bizi nahi omen zuen. Ustez, denetatik hartu ondoren, hala bizitzen hasi zen egun berean ohartu zen ezinezkoa zela.

138. San Pedrori ipurdia erre nahi (LTZ-021/008)

Pello izeneko bat teilatura igo eta San Pedrori ipurdia erretzen saiatu omen zen etxafuegoak botaz.

139. Ardi bat gaizkitu (LTZ-021/009)

Ardi bat gaizki jarri zen eta ardoa eman zioten sendatzeko. Baita sendatu ere.

140. Kartetan “ahuntza” jokatzeari eta “erdia eta erdia” egitea (LTZ-021/010)

Kartetan berdinketa gertatzen zenean, azken partidak erabakitzen zuen garailea. Horri ahuntza esaten zitzaioan. Bestalde, ardoa eta gailetak hartzen zituzten kartetan aritzeko “erdia eta erdia” deituriko ohituraren arabera.

141. Munduaren haserako martxak (LTZ-021/011)

Mundua sortu zenean, gauza guztiek, baita animaliek ere, hitz egiten zuten. Goroldioak berriz ez, eta erakusten hasi zirenean, denek galdu zuten hizketako gaitasuna.

142. Oihal txuria paratzen zuten ezpandan (LTZ-021/012)

Baserri inguran lanean ari zirenei, bazkaltzera joateko abisua oihal txuriaren bidez egiten zieten etxeoandreek.

143. Artzaia gaizkitu eta ohatilan ekarri (LTZ-021/013)

Artzai bat gaizkitu zen Leitzelarren, eta beste artzai batzuek haren baserriraino eraman behar izan zuten bidezidor guziak barrena ohatila batean.

144. Kukutxeztula sendatzeko astoaren esnea (LTZ-021/014)

Kukutxeztula gaitza sendatzeko astoaren esnea erabiltzen zuten lehen.

145. Hanka hautsi, eta menditik eraitsaldian ekarri (LTZ-021/015)

Ehiztari batek hanka hautsi zuen oihanean eta oihuka hasi zen. Baserritar batzuek oihuak aditu, bertara joan, eta eratsaldian ekarri zuten.

146. Behia esnerik gabe etortzen etxera (LTZ-021/016)

Lehen behiak mendira larretzen zituzten. Baserri batean ohartu ziren behi bat iluntzean esnerik gabe etortzen zela. Erreparatzen hasi, eta suge batei nola ematen zion ikusi zuten.

147. Olentzero arratsean su berria baserrietan (LTZ-021/017)

Olentzerotan su berria egiten zuten baserrietan, zaharra garbitu ondoren. Familiako bakoitzarentzat egur zati bana paratzen zen su horretan.

148. Sugeak ardia hozkatzen zuenean, elorri arantzarekin zulatzen guk (LTZ-021/018)

Ardia sugeak hozkatuz gero, elorri-arantzarekin zulatzen zuten lehen. Geroago ikasi zuten hobe zela ebakitzea, Iparraldeko batzuei esker.

149. Sugeak zakurra hozkatu (LTZ-021/019)

Sugeak zakurra hozkatu zuen behin, eta zakurra hilzorian zegoela, ebakia eginda garbitu zioten pozoia.

150. "Odola aterako al didak?" (LTZ-021/020)

Artzai bat gaizki jartzen zen odolana jotzen zuenean, tentsioa igotzen zion gaitzak jotzen zuenean. Horrelakoetan, odola atera behar izaten zioten.

151. Oilaloka eta txitak ezin harrapatuz (LTZ-021/021)

Oilo batzuek kabia eta txitak mendian edo nonahi egiten zituzten. Horrelakoetan sekulako komeriak erabiltzen zituzten haien bila.

152. Idiak zeramatzaten kontrabandoan (LTZ-021/022)

Kontrabandoko idiak baserri bateko ikuilura joan ziren. Baserrian zalaparta sumatu zuten eta esnatu. Azkenean, haien bideari segitu zioten kontrabandoan zebiltzanek beren idiekin.

153. Beharrak lagundu omen zioan lehengoari ere (LTZ-021/023)

Aitak egurra ekartzera bidali zuen semea, bakarrik bidali ere, beharra izeneko batek lagunduko ziola esanda.

154. Azeriak axuriari lepoa moztu eta eraman (LTZ-021/024)

Azeriak oso kalte handiak eragiten dituzte baserrietan. Besteak beste, axuriei lepoa moztu eta eraman, gorputza bertan utzita.

155. Txu zaharra, behor azkarra (LTZ-021/025)

Behor zahar bat bazen mendian bizi zena, baina eguraldiak aldaketa zuenean bordara joaten zena elurra hasi baino lehen. Artzaiek haren bidez jakiten zuten elurra zetorrela.

156. "Potxolo" tabako bila (LTZ-021/026)

Bi baserritar tabakorik gabe gelditu ziren mendian lanean ari zirela. Txakurra bidali zuten baserrira tabakoaren bila.

157. Emakumeek buruaren gainean pegarrak eta erosketak (LTZ-021/027)

Emakumeek burukatea erabiltzen zuten garraiorako, ura eta erosketak buruaren gainean erabiltzen zituzten.

158. Auzolana nola izaten zen (LTZ-021/028)

Auzolanez laguntzen zioten elkarri lehenago, batez ere zaharrak edo ezinduak zeuden etxeetan egiten zen hori.

159. Filomeno, Leitzelarren bizi zen desertorea (LTZ-021/029)

Filomeno izeneko gizon bat mendian bizi zen, gerratik ihesi etorri ondoren. Haren ospe txarra zela eta, izua eragiten zien ezagutzen ez zutenei. Hala ere, gizon ona eta langilea omen zen.

160. Lixiba (LTZ-021/030)

Garbigailurik ez zenean, maindireak eta arropa suko hautsa erabilita garbitzen ziren kuela izeneko ontzi batean.

161. Bordaberrie erre zenekoa (LTZ-021/031)

Bordaberri izeneko baserria erre zen, baina herritar askoren lanari esker, denak ere auzolanez arita, denbora laburrean berreraiki zuten.

162. Artoa (talo lodia supean egina) (LTZ-021/032)

Artoa, taloa baino lodiagoko opila, supean erretzen zen. Taloa baino askoz lodiagoa eta goxoagoa.

163. Hortza erorita sutara bota (LTZ-021/033)

Hurrei hortza erortzen zitzaientean, hartu eta sutara botatzen zuten hau esanez: "San Migel, San Migel: tori zaharra eta ekartzu berria".

164. Eguzkiloak (LTZ-021/034)

Etxe batzuetan eguzkiloak paratzen ziren babeserako balio zutelakoan.

165. Txartela hartzera eta dotrinarik ez jakitea (LTZ-021/035)

Baserritar bat txartela hartzera joan zen baina apaizak ez zion eman dotrinarik ez zekiela. Hurrengoan neskak dotrina bazekien, baina apaizak ez neskak ardiez egindako galdera bat.

166. Haurrak etxean jaiotzen (LTZ-021/036)

Lehen, haur guztiak etxean jaiotzen ziren, emaginek lagunduta, medikurik gabe.

167. Bularra ematera auzolanez (LTZ-021/037)

Haur bat jaiotzen zenean, bularra hartzen ikasteko edo amak gutxi bazuen, auzoko beste amaren batek emanen zion arazorik gabe haur berriari.

168. Tomas Barungoa bertsotan askotan aritzen zen (LTZ-021/038)

Tomas Barungoa bertsolari polita zen eta beti kantari aritzen zena gainera. Haren zenbait bertso kantatu zizkigun haren ondorengo batek.

169. Ostazuriaren ostoa tabakotarako eta txurikina paperatarako (LTZ-021/039)

Errazionamenduaren garaian, tabakoa bukatzen zitzaienean ostoz eta txurikinez egiten zituzten zigarroak orduko gizonek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com